

{ analisis } Amagoia MUJKA TELLERIA Kazetaria

Errezeta aldatzeko beharra

Elba Mansilla “La Ciutat Invisible” proiektuko kidea da. Bartzelona inguruan martxan dagoen ekimena da, zaintzaren arloan aritzen da eta lan autoantolakuntzan dago oinarritua. Emakume migratuek zuzendutako proiektua da, gehienak latinoamerikarrak. Duela aste batzuk Hernanin izan zen Mansilla, KoopFabrikak eta Mondragon Unibertsitateak antolatutako “Ertzeko bizitzak eraldatzeko ekintza kooperatiboa” jardunaldietan.

Egungo zaintzaren panorama oso eskasa da, eta zerbitzuen «uberizazioa», nabarmena. Multinazional indartsuek bereganatzen dituzte zerbitzuak, prezioak merke baino merkeago jarri. Sistema horrek ez du ziurtatzen ez zaindua izan behar duenaren ongizatea, ez zainzailearen lan baldintzak.

Langileek garbi daukate, ez diote tortillari buelta eman nahi, errezeta aldatu nahi dute. Eta errezeta aldatzeko aukera bat zaintza kooperatibak dira. Mansillaren hitzetan, «lana duintzeko bideak dira. Uste dugu lan batzuek eskubideak dituztela eta beste batzuek ez. Eta guretzat garrantzitsua da adieraztea lan guztiek, merkatuan duten tokia edozein dela ere, eskubide ekonomikoak sortzeko tresna

Egungo zaintza sistemaren aldamiaoa hiru zutaberen gainean dago eutsia; genero, klase eta jatorri desberdintasuna. Zaintza kooperatibak egoera iraultzeko aukera bat izan daitezke; ez tortillari buelta emateko, errezeta aldatzeko baizik



Elba Mansilla Hernanin izandako jardunaldietan. Jon URBE | FOKU

izan beharko luketela, gutxieneko diru-sarrera batzuek eskuratzeko tresna, pertsonen duintasunez bizitzeko aukera emango dieten eta herritartasun-eskubideak sortzeko dituzten bizibaldintzak bermatzeko. Gaur egungo erregimena etxeko lanaren eta zaintzaren erregimen bereziko atzeritartasun-lege baten gainean dago. Aldamio hori gabe sistema erori egingo litzateke, ez luke jasango. Genero, klase eta jatorri desberdintasunaren gainean dago eraikia egungo zaintza sistema». Mansillak garbi dauka norabidea, «batzuen eskubideak besteen eskubideen kontura ez doazen zaintza eredu bati buruz hitz egin behar dugu».

Zaintza kooperatibak sortzeko prozesua ez da erraza, hiru eta bost urte arteko prozesuez hitz egiten da. «Kooperatibak ez dira merkatuaren bidetik oreka ekonomikoa aurkitu behar duten ekintzaileetza-prozesuak. Horrelako proiektuak bultzatzen dituzten pertsonak ez dira kapitalizatzeke langabezia duten goimailako ikasketak dituzten ekintzaileak edo gurasoen diruarekin enpresa teknologiko bat martxan jarriko dutenak. Kasu gehienetan urtebete behar izaten da atzeritartasun departamenduan hitzordua izateko, izapideak hasteko. Estatutuak erregistratu nahi dituzunean, oztupo asko

aurkitzen dituzu. Oztupoak desegin eta gizarte-zerbitzuen ikuspegia aldatu beharko litzateke proiektu horiek emantzipatzeko, ahalduztzeko eta gizarteratzeko osagaiak dituztela ikusteko; osagai eraldatzaile hori identifikatzeko». Mansillaren ustez, «pobreei pobrezia hori betikotzeko banaka ematen diegun diruaren partez beren emantzipazio-prozesuak hasteko baliabideak emango bagenizkie, ikusiko genuke zer aukera dituzten prozesu horiek».

Errezeta aldatu behar da eta borondate politikoa osagai garrantzitsua izango da. «Zaintzen erantzukizuna sozializatuko duen eta familia eremuetatik aterako duen borondate politikoa behar dugu. Familiak uzkurte-prozesuan daude. Gero eta kide gutxiago daude, eta horien artean banatu behar da zaintzeko ardura. Landenborek leku guztia hartzen dute eta oso leku gutxi uzten diete zainketei. Zaintzeko ardura hori emakumeen, emazteen, alaben eta errainen esku uzten ari gara, eta, eskualdatzen bada, beste emakume batzuei transferitzen zaie, hierarkiazio sozialaren eta familiek ordaintzeko dituzten aukeren arabera. Borondate politikoa eraikuntza hori hautsi behar du eta zaintzaren etikaren begirada feminista barneratu behar du».